

Espainiako Konstituzioa, EHUren arabera

(Spanish Constitution by the University of the Basque Country)

PETRIRENA, Patxi; UGARTEMENDIA, Juan Inazio;
URKOLA, Jasone; ZELAIA, Maite

Euskal Herriko Unibertsitatea
Zuzenbide Fakultatea
Manuel Lardizabal, 2
20018 Donostia
maite.zelaia@ehu.es

BIBLID [1137-1951 (2005), 16; 77-82]

E

uskal Herriko
Unibertsitateko Zuzenbide
Fakultateko Euskara Mintegiak
egun Espainian indarrean dagoen
1978ko Konstituzioaren
euskarazko bertsioa argitaratu du
(Constitución Española –
Espainiako Konstituzioa, UPV-
EHU, Bilbao, 2006).

Giltza-hitzak: Espainiako
Konstituzioa. Itzulpena.
Zuzenbideko Euskara Mintegia.
EHU.

E

l Seminario de
Euskara Jurídico de la Facultad
de Derecho de la Universidad del
País Vasco ha publicado una
versión en euskera de la
Constitución de 1978
(Constitución Española –
Espainiako Konstituzioa, UPV-
EHU, Bilbao, 2006).

Palabras clave:
Constitución Española.
Traducción. Seminario de Euskara
Jurídico. UPV.

Z

e Séminaire de la
Langue Basque Juridique de la
Faculté de Droit de l'Université du
Pays Basque vient de publier une
version en langue basque de la
Constitution Espagnole de 1978
(Constitución Española –
Espainiako Konstituzioa, UPV-
EHU, Bilbao, 2006).

Mots clés: Constitution
espagnole. Traduction. Séminaire
de la Langue Basque Juridique.
Université du Pays Basque.



1. Egitasmoaren nondik norakoak

Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko Euskara Mintegiak egun Espainian indarrean dagoen 1978ko Konstituzioaren euskarazko bertsioa argitaratu du, *CONSTITUCIÓN ESPAÑOLA-ESPAINIAKO KONSTITUZIOA*, EHU, Bilbo, 2006. Ezaguna denez, egun badaude testu honen beste hainbat itzulpen. Baina, hori horrela izanik ere, itzulpen ekimen honek badauka bere izateko arrazoia.

Hasteko, ekimen hau beste jarduera orokorago baten testuinguruan kokatzen da: Eusko Jaurlaritzaren Justizia Sailak eta Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateak espainiar testu juridiko oinarrikoenak (bai arlo publiko eta bai arlo pribatukoak) euskaratzeko sinaturiko hitzarmenaren barnean, alegia. Izan ere, egun Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateak irakaskuntza osoa (aukerazko zenbait irakasgai salbu) euskaraz eskaintzen duen arren, testu mailan (bai testu juridiko eta baita irakaskuntzara zuzenduriko testuen alorrean) hutsune eta gabeziak dira nagusi. Egoera horri aurre egin asmoz (beste helburu batzuen artean, noski) sortzen da, hain zuzen ere, Zuzenbideko Euskara Mintegia (ZEM). Beraz, hitzarmen honen eta Zuzenbideko Euskara Mintegiaren helburuak gune komun bat dute: testu juridikoen itzulpengintza lan orokor eta sistematiko bat egitea, bai itzuli gabe dauden testuena eta baita itzulita dauden testu bakar batzuen ere (horien artean, Espainiar Konstituzioa), kasu denetan irizpide berdinak erabiliz eta metodo berdina aplikatuz.

Ibilbide hau Espainiar Konstituzioa itzuliz hasi da. Arau honen itzulpena lehen lan gisa burutzeak bi helburu nagusi izango ditu: alde batetik, gerora gainontzeko arauen azterketa eta itzulpenak egiteaz arduratuko diren lantaldeentzako jardunbidearen oinarriak zehazturik uztea, eta bestetik, berriz, edozein arlo juridikotan baliagarri gertatuko diren oinarriko hitz teknikoen zerrenda, ahal den neurrian behitzat, adostu eta finkatzea.

Gure ustez, aurkezten den testu honen potentzialitate edo balio nagusia beraren itzulpen lanetan parte hartu dutenen izaeran legoke: Zuzenbide Fakultatean zuzenbideko arlo guztietan, eta ikasturte askotan zehar, euskaraz eskolak eman eta ikertzen ari diren irakasleen eta itzulpen teknikarien lantalde bat da preseski lan hau gauzatu duena. Argi dago, urte askotan zehar egunero euskara eta zuzenbidea uztartuz lanean ari diren legelari hauen ezagupen eta esperientzia erabat egokiak direla aipaturiko eginbeharra betetzeko. Baina ez hori bakarrik, hauen lanari, hizkuntzalarien lan zorrotza gehitu behar diegu.

Itzulpen honetan jarraituriko metodoa legelari eta hizkuntzalarien arteko elkarlanean oinarri-

tu da. Batetik, hizkuntzalarien taldean aritu dira: itzulpen teknikari bezala Patxi Petrirena eta Irene Aldasoro (bi bekadunen laguntzarekin, Haizea Korpa eta Begoña Albisu), eta baita Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuko Juan Gartzia, Ibon Sarasola eta Iñaki Ugarteburu. Bestetik, Zuzenbideko Euskara Mintegian barneraturik, ondoko irakasle hauek parte hartu dute lan honen elaborazioan: Carmen Agoues eta Jasone Urkola (Administrazio-Zuzenbidea); Aitor Bengoetxea, Garbiñe Biurrun eta Edurne Terradillos (Lan Zuzenbidea); Ana Leturia (Zuzenbide Eliztarra); Iñaki Esparza (Zuzenbide Prozesala); Itziar Alkorta eta Mikel Karrera (Zuzenbide Zibila), eta Juan Inazio Ugartemendia eta Maite Zelaia (Konstituzio-Zuzenbidea). Bi talde hauen arteko harremana modu egokian bideratu izanaren erantzulea Zuzenbide Fakultatean Euskara Teknikoaren arduraduna den Antton Elozegi irakaslea izan da.

Zehazkiago, metodoari dagokionean, itzulpenaren oinarriko testua itzulpen teknikariek landu dute (arazoak hizkera tekniko edo arruntekoak diren bereiziz, arazo arruntak konponduz, zalantzak planteatuz...). Hizkera tekniko arazoak zehaztu ondoren sartu da legelarien lantaldea eskenatokian, beraien arteko koordinatzaile lanak Konstituzio-Zuzenbideko irakasleek bete dituztelarik. Legelarien beraien eztabaida arteko adostasuna lortzea sarritan ez da egiteko erraza izan. Halere, horrek, eta argudioetan sakontzea eskatu du, azkenean harturiko erabakiaren sendotasuna nabarmenago gelditu delarik. Azken finean, diziplinarteko metodo erreflexibo honek azken emaitza hobetu duenaren uste sendoa dugu.

2. Itzulpenari buruzko azalpenak

Espainiako Konstituzioaren beste itzulpen bat egin da EHUko Zuzenbide Fakultatean, hainbat lege-testu itzultzeko proiektu baten lehenbiziko pauso gisa. Aurretik eman dugu proiektuaren beraren berri; hemen, itzulpenaren alderdi teknikoari dagozkion zenbait zertzelada emango dugu.

Zuzenbidean aditua ez den itzultzaile batek prestatu du testu-oinarria, EHUko Euskara Zerbitzuak begiratu du hizkuntza-kalitatea, eta gaian aditu direnek –irakasleek– onespina eman arte ez dugu itxi artikulu bakar bat ere. Guztizko adostasunik ez dugu erdietsi puntu bakanen batean, baina... gainerako guztian bat etortzea lorpen handia izan da, dudarik gabe. Lan neketsua izan da, baina emankorra.

Zuzenbideko testu oinarriko bezain itzaltsua izanik Konstituzioa, arduraren berezia izan dugu zehaztasuna zaintzen. Dudarik gabe, ahalik eta itzulpenik literalena egitea eskatzen du horrelako

testu batek, jatorrizkoak dioen huraxe uler dadin eta ez besterik. Baina, literaltasun hori erdietsi nahian, gure ahaleginik handiena ez da izan hitza hitzarekin ordaintzea: formari leial izatea baino gehiago, zentzuari leial izatea hartu dugu xede; hitzen gehiegizko morrontzan erori gabe, ideiak doi eta argi ematea.

Hona hemen zenbait adibide, erakusgarritzat balioko dutelakoan.

Estiloa

Konstituzio bat ez da azalpen-testu arrunt bat, erregistro arruntean idatzia: maila jasoagokoa da. Euskaraz ere, nahiz eta itzulpenean esanahia- ren alderdiari gehiago begiratu formaren alderdiari baino, neurri batean bederen antzeman behar da testu lau– lauaz bestelako ukitu bat. Adibidez:

Debeku da hobetsi dugu *debeكاتuta dago* esapidearen aldean. Hizkera arruntean bigarrena erabiltzen badugu ere, maila bateko euskaran ongi errotua da debeku izan, eta aldi berean erraz ulertzen da.

Orobat lokailua aise gehiago erabili dugu *bai eta ... ere* baino. Sintaxian ere jokoa ematen du; koma artean ez ezik, galdegai posizioan ere baliatu dugu:

(118) Nahitaezkoa da epaileen eta auzite- gien epai eta gainerako ebazpen irmoak betetzea eta, **orobat**, haiek eskatutako laguntza ematea, prozesuan zehar eta ebatzitakoa exekutatzean.

(53.3) Azken errekurtsio hori **orobat** aplikat- dakioke 30. artikuluan aitortutako kontzientzia- era- gozpenerako eskubideari.

Ahalerazko aditz ugari ageri da konstituzio- testuan, baiezka eta ezezka: *podrán, no podrán...* Baiezkoetan, *ahal izan* ez ezik, *esku izan* esapi- dea ere erabili dugu; ezezkoetan, nagusiki *ezin jasoko dute* ereduari jarraitu gatzazkio.

(4.2) Estatutuek **esku izango dute** autono- mia-erkidegoen bandera eta ikur propioak aintza- testeko.

(87.2) Autonomia-erkidegoetako legebiltza- rrek **esku izango dute** Gobernuari eskatzeko lege-proiektu bat onar dezan...

(15) Denek dute bizitzeko eskubidea eta osotasun fisiko eta moralerako eskubidea, eta inori ezin **pairaraziko zaio**, ezein kasutan, ez tor- turarik, ez gizatasunaren edo duintasunaren kon- trako zigor edo tratirik.

Aurreko adibidean ageri denez, *ezein* hitza erabili dugu, testu arruntago batean *inoiz* edo *inola* sar bazitekeen ere:

(24.1) Pertsona guztiek eskubidea dute epaileek eta auzitegiek benetan babes eman die- zaieten beren eskubide eta interes legitimoen era- bileran, eta ezein kasutan ezin gertatuko da defentsa-gabeziarik.

Gaztelaniaz: *“Todas las personas tienen derecho a obtener la tutela efectiva de los jueces y tribunales en el ejercicio de sus derechos e intere- ses legítimos, sin que, en ningún caso, pueda producirse indefensión”*.

Sintaxia

Ahalegin berezia egin dugu esaldiak arin antolatzeko: aditza lehenbailehen jarri, subjektua eta aditza ahalik eta hurbilen eman, eten handirik ez egin...

(7) Langile-sindikatuak eta enpresaburu- elkarteak lagungarri dira dagozkien interes ekono- miko eta sozialak babesteko eta sustatzeko.

Gaztelaniaz: *“Los sindicatos de trabajado- res y las asociaciones empresariales contribuyen a la defensa y promoción de los intereses econó- micos y sociales que les son propios”*.

(9.2) Botere publikoen egitekoa da bideak jartzea norbanakoen nahiz taldeen askatasuna eta berdintasuna bene-benetakoak izan daitezen (...).

Gaztelaniaz: *“Corresponde a los poderes públicos promover las condiciones para que la libertad y la igualdad del individuo y de los grupos en que se integra sean reales y efectivas (...)”*.

Gaztelaniazko esaldiaren egiturak asko laguntzen ez zuenean ere, irizpide horiei jarraitu diegu, puntuazioa ere sintaxiaren zerbitzura jarriz:

(143.1) Konstituzioaren 2. artikuluan aitortu- tako autonomia-eskubidea erabiliz, **autogobernu- ra iritsi eta autonomia-erkidego gisa eratu ahal izango dira**: historia-, kultura- eta ekonomia-ezau- garri erkideak dituzten probintzia mugakideak; uharte-lurraldeak, eta historiaz eskualde-izaera duten probintziak. Hartarako, Titulu honek eta kasuan kasuko autonomia-estatutuek diotenak agintzen du.

Esaldiaren muin hori askoz atzerago dago gaztelaniazko testuan:

“En el ejercicio del derecho a la autonomía reconocido en el artículo 2 de la Constitución, las provincias limítrofes con características históricas, culturales y económicas comunes, los territorios insulares y las provincias con entidad regional his- tórica podrán acceder a su autogobierno y constituirse en Comunidades Autónomas con arreglo a lo previsto en este Título y en los res- pectivos Estatutos”.

Esaldiak arin antolatzea ez da erraza gertatzen askotan, jakina: nahitaez hari luze samarrean eman beharrekoak badira tartean. Halakoetan ere, antolatzailerak eta loturak baliatuz saiatu gara elementuak egoki antolatzen, ulergarri gerta zitezkeen halako esaldiak ere.

(155.1) **Baldin eta autonomia-erkidego batek betetzen ez baditu** Konstituzioak edo beste lege batzuek ezarritako betebeharrak, edo Espainiaren interes orokorrari larri erasotzen dion moduan jokatzeko badu, **Gobernuak, aurrez** autonomia-erkidegoko presidenteari errekerimendua eginik eta, hark aintzat hartu ezean, Senatuaren gehiengo absolutua bildurik, **dagozkion neurriak hartu ahal izango ditu** erkidegoari betebeharroriek nahitaez beteazteko edo aipatutako interes orokorra babesteko.

“Si una Comunidad Autónoma no cumple las obligaciones que la Constitución u otras leyes le impongan, o actuare de forma que atente gravemente al interés general de España, el Gobierno, previo requerimiento al Presidente de la Comunidad Autónoma y, en el caso de no ser atendido, con la aprobación por mayoría absoluta del Senado, podrá adoptar las medidas necesarias para obligar a aquélla al cumplimiento forzoso de dichas obligaciones o para la protección del mencionado interés general”.

Transposizioaz eta modulazioaz ere baliatu gara, beharrezkotzat jo dugunean: baiezkoko ezezka eman¹ edo alderantziz, erlatiboak bestelako egituraz...

Baiezkoa ezezka

(20.5) **Ezin erabakiko da** argitalpenak, grabazioak edo bestelako informazio-bideak bahitzea, hartarako ebazpen judizialik ezean.

“Sólo podrá acordarse el secuestro de publicaciones, grabaciones y otros medios de información en virtud de resolución judicial”.

Erlatiboak

(3.3) Espainia aberatsa izanik mintzairamoldez, bereziki errespetatu eta zainduko da kultura-ondare hori.

“La riqueza de las distintas modalidades lingüísticas de España es un patrimonio cultural que será objeto de especial respeto y protección”.

(13.4.) Legeak ezarriko du **nola erabil dezaketen** Espainian asilo-eskubidea beste herrialdeetako herritarrek eta aberrigabeek.

“La ley establecerá los términos en que los ciudadanos de otros países y los apátridas podrán gozar del derecho de asilo en España”.

(31.1) Denek lagunduko dute gastu publiko-
ei aurre egiten, nor bere ekonomia-ahalmenaren arabera, tributu-sistema justu baten bitartez; berdintasun eta progresibotasun printzipioetan oinarrituko da sistema hori, eta ezein kasutan ez da iritsiko konfiskatzeraino.

“Todos contribuirán al sostenimiento de los gastos públicos de acuerdo con su capacidad económica mediante un sistema tributario justo inspirado en los principios de igualdad y progresividad que, en ningún caso, tendrá alcance confiscatorio”.

Nominalizazio ugari darabil gaztelaniazko testuak, euskarari arrotz zaion moldean, eta aditzez edo aditz-izenez itzuli ditugu eskuarki halakoak:

(69.1) **Lurraldeak ordezkatzeko** ganbera da Senatua.

“El Senado es la Cámara de representación territorial”.

(72.1) Erregelamenduak eta haien erreformak **osotasunean bozkatu behar dira azkenik**, eta gehiengo absolutua beharko da haien onesteko.

“Los Reglamentos y su reforma serán sometidos a una votación final sobre su totalidad, que requerirá la mayoría absoluta”.

(81.2) Lege organikoak **onesteko, aldatzeko edo derogatzeko**, Kongresuaren gehiengo absolutua behar da, proiektu osoari buruzko azken bozketa batean.

“La aprobación, modificación o derogación de las leyes orgánicas exigirá mayoría absoluta del Congreso, en una votación final sobre el conjunto del proyecto”.

(94.1) Estatuak adostasuna emango badu bere burua tratatu edo hitzarmen bidez lotzeko, **aurrez** Gorte Nagusiek **baimena eman beharko dute**, honako kasu hauetan:

“La prestación del consentimiento del Estado para obligarse por medio de tratados o

1. Gaztelaniaz ere ezezka formulaturik dago, zenbaitetan, ideia bera. Adibidez (117.4): *Los Juzgados y Tribunales no ejercerán más funciones que las señaladas en el apartado anterior y las que expresamente les sean atribuidas por ley en garantía de cualquier derecho*. Alegia, *“sólo ejercerán las funciones señaladas...”*. Honela eman dugu hori euskaraz: *Epaitegi eta auzitegiek ez dute beste eginkizunik beteko, aurreko zenbakian adierazitakoak eta, edozein eskubide bermatzeko, legez espresuki ematen zaizkien baino*.

convenios *requerirá la previa autorización de las Cortes Generales, en los siguientes casos:*"

Hitz ordena estandarrari lotu gatzaizkio, galdegaia aurretik eman. Perpaus osagarriak aditzaren ondoren eman ditugu eskuarki. Aditza bera da galdegai, jakina, honelakoetan:

(20.1) Aitortzen eta babesten dira honako eskubide hauek:

"Se reconocen y protegen los derechos:"

(18.3.) **Bermatzen da** komunikazioen isilpe-kotasuna eta, bereziki, posta, telegrafo eta telefono bidezkoena, ebazpen judizialik izan ezean.

"Se garantiza el secreto de las comunicaciones y, en especial, de las postales, telegráficas y telefónicas, salvo resolución judicial".

Puntuazioa

Gaztelaniazko testuak berak sortzen dituen zenbait zalantza gorabehera, ahalik eta zorrotzen puntuatu dugu euskarazkoa. Horretarako, jakina, lege-adituen iritzian oinarritu dugu gure aukera; hortik aurrera, argitasuna izan dugu xede.

(68.3) Barruti bakoitzean egingo da hautaketa, ordezkartza proportzionala harturik irizpidezat.

"La elección se verificará en cada circunscripción atendiendo a criterios de representación proporcional".

(151.1) Ez da beharrezko izango bost urteko epea iragaten uztea, 148. artikulua 2. zenbakiak dioen bezala, baldin eta (...)

"No será preciso dejar transcurrir el plazo de cinco años, a que se refiere el apartado 2 del artículo 148, cuando (...)".

Sintaxiaren zerbitzuan erabili dugu puntuazioa zenbaitetan. Esate baterako, marrak eta bi puntuak lagungarri izan ditugu honelakoetan:

(8.1) Indar Armatuak –Lurreko Armadak, Itsasoko Armadak eta Aireko Armadak osatuak– eginkizun hauek dituzte: (...)

"Las Fuerzas Armadas, constituidas por el Ejército de Tierra, la Armada y el Ejército del Aire, tienen como misión garantizar (...)".

(9.3) Konstituzioak bermatzen ditu: legezkotasun printzipioa, arau-hierarkia, arauak publiko egitea, (...)

"La Constitución garantiza el principio de legalidad, la jerarquía normativa, la publicidad de las normas, (...)".

(101.1) Gobernuaren agintaldia amaitzen da: hauteskunde orokorrak izan ondoren; konfiantza parlamentarioa galdu duenean, Konstituzioan aurreikusitako kasuetan; edo presidentearen dimisio edo heriotzagatik.

"El Gobierno cesa tras la celebración de elecciones generales, en los casos de pérdida de la confianza parlamentaria previstos en la Constitución, o por dimisión o fallecimiento de su Presidente".

Ez gara batere uzkur ibili esaldi bat bitan mozteko, hala egokiago datorrenean:

(23.1) Herritarrek eskubidea dute gai publikoetan parte hartzeko, zuzenean edo ordezkarien bitartez; ordezkariok libreki aukeratuko dira, sufragio unibertsalez, aldi behingo hauteskundeetan.

"Los ciudadanos tienen el derecho a participar en los asuntos públicos, directamente o por medio de representantes, libremente elegidos en elecciones periódicas por sufragio universal".

Lexikoa eta terminologia

Urteotan euskaraz normalizatzeko bidean jarritako hainbat hitz eta termino sartu dira itzulpen honetan. Luze eztabaidatuta, zenbait kasutan (eskubideak aitortu, eskumenak baliatu...), eta bestelako aukera batzuk ukatu gabe. Hona batzuk:

– *aitortu* (eskubideak)

– *baliatu, erabili* (eskubideak, eskumenak)

– *eskumen* ('competencia') eta *jurisdikzio* ('jurisdicción')

– *eskuordetu* ('delegar'), *eskuordetza* ('delegación, acción de delegar')

– *legegintza-ekimena, legegintzako herri-ekimena*

– *izapide, izapidetu*

– *ahal* ('poder'), *ahalorde* ('poder otorgado'), *ahalmen* ('facultad')

– *ebazpen, ebazpen judizial, ebazpen irmo*

– *zinpekoen epaimahai* (125)

– *jurisdikziopeko itsaso* (132.2)

Zenbait puntutan, lantaldean zorrotz aztertu eta aukerak haztaturik, apur bat alden du gara gaur egun zabal dabiltzan aukera batzuetatik:

– *aldakizun* izendatu ditugu lege batean aldatzeko edo gehitzeko proposatzen diren testu-zatiak, eta ez *zuzenketa*

– *berdindu* aditza erabili dugu (*kaltea berdindu*, ‘*reparar el daño*’), nahiz gaur egun *konpondu* dabilen gehien

– *derogatu* aditza erabili dugu, lege-testu batek indarra galtzeko modu zehaztzat harturik, eta *indargabetu* orokor gisa utzi

– *tratu* izena erabili dugu ‘nazioarteko itun’ adiera zehatzerako

Aukera horiek, beste guztiak bezala, balio betekoak direlako uste osoan egin ditugu: aurrera-ko ikusi behar zer harrera duten.

Maileguzko hainbat hitz ageri dira testu honetan normal-normal erabilirik, *Hiztegi Batuan* sarrera izan dutenez gero:

– *nazionalitate* (besterik dira *naziotasun*, ‘nazio izate’, eta *herritartasun*, adibidez)

– *instituzio*

– *diskriminazio*

– *zirkulatu*, *zirkulazio*

– *libre* (*libre izan*)

– *autoritate* (ez *agintari* adieran)

– *sufragio*

– *zentsura-mozio*

– *deklaratu* (“*salbuespen egoera deklaratu*”, adibidez)

– ...

Beste zenbait hitz eta esapide aipagarri:

– *legearen agintea* (*imperio de la ley*)

– *entzuera*, *entzuera eman* (*audiencia*, ‘*oir en audiencia*’)

– *funtsatu*

– *legearekin ados* (*legearekin bat etorri*, *legearen arabera*)

– *-en mende egon* (“*kontrol judizialaren mende egon*”), *men egin* (“*legeari eta Zuzenbideari osotara men eginik*”), *menderaturik egon* (“*legearen agintera baino ez daude menderatuak*”)

Interpretazio-arazoak

Testua egoki itzuliko bada, zalantza sortzen duten puntuetan interpretazioa egin beharra dago, eta lege-adituek esandakoaren argitan egin dugu geurea, jakina. Ikus, esaterako, nola desberdin itzuli den artikulua hau hizkuntza batean eta bestean (gure lanean, hamar bertsiotik gora egin genituen...):

(141.1) “La provincia es una entidad local con personalidad jurídica propia, determinada por la agrupación de municipios y división territorial para el cumplimiento de las actividades del Estado”.

(cat) “La província és una entitat local amb personalitat jurídica pròpia, determinada per l’agrupació de municipis i la divisió territorial per al compliment de les activitats de l’Estat”.

(fr) “La province est une entité locale ayant une personnalité juridique propre, déterminée par le groupement de communes, ainsi qu’une division territoriale en vue de mener à bien les activités de l’Etat”.

(gurea)

Probintzia nortasun juridiko propioa duen toki-entitatea da, udalerrri multzo batez osatua, eta Estatuaren jarduerak betetzeko lurralde-banaketa.

(*lehendik dauden bertsioak*)

Probintzia toki erakundea da, eta berezko nortasun juridikoa dauka; udal-elkartzeak eta lurralde-zatiketak mugatzen dute probintzia, estatuaren jarduerak betetzeko.

Probintzia, lege izaera berezkoa duen toki erakundea da, udalerrien elkartzearekin eta lurraldearen banaketarekin sortzen dena, Estatuoko eginkizunak betetzeko.

Horra, bada, lan honetan erabilitako zenbait irizpide eta inguruabar. Irakurleari dagokio, orain, emaitzaren egokitasuna epaitzea. Bidean dira lege-testu gehiago ere.